



Hau da aste honetako euskararen pilula!

Nola izendatu arau-zatiak euskaraz?

Zati letraduna: Letra

Zati zenbakiduna: Zenbaki

Letrarik edo zenbakirik gabea: Paragrafo

BOEn eta EHAAn era desberdinak erabiltzen dituzte arauetako testu-zatiak izendatzeko, batean *apartado*izendatzen dutena, bestean *párrafo* izendatzen baitute, eta alderantziz. Horrek nahasmen ugari ekarri ohi du jatorri desberdineko arauak irakurtzeko orduan baita zalantza askotxo sortu ere, arauak itzultzeko orduan.

Horregatik, arauen itzulpenean arazo horri aurre egiteko, IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZOk) proposamen hau egin du:

- Zatia zenbakiarekin hasten bada (1, 2, 3...), **zenbaki** izendatu.
- Zatia letrarekin hasten bada (a, b, c...), **letra** izendatu.

Dena den, zenbakia edo letra ez duen testu-zati jakin bat izendatzeko bada, **paragrafo** deitzea gomendatzen da.

Adibide batzuk:

- Beharrezkoa izango da 182. artikuluko 1. **zenbakiko** a), c) eta d) **letretan** ezarritako betekizunak betetzea.
- Artikulu honen 2. **zenbakiko** a) eta d) **letretan** eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Pilula honekin lotutako beste bat:

“BOE” euskaraz, nola?

Gaia: TERMINOLOGIA

Iturria: Itzulpen- eta berrikusketa-irizpideak. Erabakiak eta gomendioak (IZO)